Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Alango, 25
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 02 00
Faxa: 94 466 00 96
http://www.getxo.eus

Euskadi 2006

Sinatua: / Firmado: AURORA BARRIO PAZO (ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA / TECNICA DE ADMINISTRACION GENERAL) Data: 2022/11/28 Fecha: 28/11/2022
MIREN KELTSE EIGUREN ALBERDI Data: 2022/11/30 Fecha: 30/11/2022

Cod. Validacion: GET/DEK/2022/5316 Nm1PIgsp61

| **Ebazpena** / Resolución: | **5316 / 2022** | **Erref.** / Ref.: | **AB/bo** |
|---|---|---|---|
| **Gaia** / Asunto: | **2022ko GABONETAN GETXOKO OSTALARITZA-LOKALAK IXTEKO ORDUTEGIA LUZATZEKO EBAZPENA/RESOLUCIÓN DE AMPLIACIÓN DEL HORARIO DE CIERRE DE LOS LOCALES DE HOSTELERÍA DEL MUNICIPIO DE GETXO DURANTE LAS FIESTAS DE NAVIDAD 2022.** | | |
| **Arloa** / Área: | ***UDALTZAINGOA*** **/ POLICIA** | | |
| **Interesduna** / Interesado: | **ASOCIACION DE HOSTELERIA BIZKAIA OSTALARITZAKO ELKARTEA / GETXO ENPRESA-GETXO EMPRESARIAL Y COMERCIAL / GOBIERNO VASCO y otros.** | | |

Kontuan hartu dira honako hauek:

Habida cuenta de los siguientes

## AURREKARIAK

I.- Laster Gabonetako jaiegunetan ospatuko dira, eta kontuan hartu dira tradizionalki Gabonetako jaiak direla eta antolatutako ekintzak.

II.- Herritarrek egun horietan eskatzen duten aisia artatzeko asmoz, kontuan izanda jolas –jarduetan eta jendaurreko ekitaldien ospakizunetan jendea biltzen dela kontuan hartuta,eta udalerriko jarduera ekonomikoa garatzen laguntzeko asmoz.

Otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren bidez onetsitako Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzen duen Erregelamenduak ematen dituen ahalmenak erabiliz,

Honakoetan oinarrituta:

## ANTECEDENTES

I.- Ante la celebración de las próximas fiestas navideñas, y considerando los actos que tradicionalmente se han venido organizando con motivo de dichas fiestas.

II.- Con la finalidad de atender al ocio que demandan los ciudadanos durante estas fechas, considerando la afluencia de público en las celebraciones de las actividades recreativas y eventos públicos, y con la finalidad de contribuir al desarrollo de la actividad económica en el municipio.

En virtud de las facultades que otorga el Reglamento que desarrolla la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas aprobado por Decreto 17/2019, de 5 de febrero.

Sobre la base de los siguientes:

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**I.-** Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 18.3 artikuluak udalei esleitzen die jaien eta bestelako ekitaldien ondorioz establezimenduen ordutegi orokorra zabaltzeko ahalmena, erregelamendu bidez aurreikusitako kasu eta moduetan.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**I.-** El artículo 18.3 de la Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y actividades recreativas, atribuye a los Ayuntamientos la facultad para establecer ampliaciones al horario general de los establecimientos con motivo de fiestas y otros eventos, en los supuestos y formas que reglamentariamente se prevean.

Getxo UDALA - AYUNTAMIENTO
Sinatua: AURORA BARRIO PAZO (ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA / TECNICA DE ADMINISTRACION GENERAL) Data: 2022/11/28 Fecha: 28/11/2022
Firmado: MIREN KELTSE EIGUREN ALBERDI Data: 2022/11/30 Fecha: 30/11/2022
Cod. Validacion: GET/DEK/2022/5316 Nm1PIgsp61

**II.-** Otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren bidez onetsi zen Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren Legearen 37.1 artikuluak ezarritakoa kontuan hartu da. Honako hau dio: *"Udal autoritateek bi orduz zabaldu ahal izango dute, gehienez ere, aurreikusitako ixteko ordua, honako ekitaldi hauek tarteko:*

*a) Udalak edo autonomia erkidegoan eskumena duen organoak jai-giroko edo turismorako interesgarri gisa kalifikatutako ekitaldiak, hala nola ospakizun publikoak, auzoetako jaiak, izaera sozialeko gertakariak, feriak, lehiaketak, erakusketak edo antzeko beste batzuk. Gehienez ere hamabost egunez egin ahal izango da urte natural bakoitzean.*

*b) Herrietako jaiak. Halakotzat joko dira udal bakoitzak bere mugartean ofizialki ezarritakoak.*

*c) Aste Santuko ostegunetik astelehenera, Inauterietako ostegunetik asteartera, eta abenduaren 15etik urtarrilaren 6ra arte Gabonetan".*

**II.-** Considerando lo establecido en el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas, aprobado por Decreto 17/2019, de 5 de febrero, cuyo artículo 37.1 establece que *"Las autoridades municipales podrán ampliar con un máximo de dos horas el horario de cierre previsto con ocasión de los siguientes eventos:*

*a) Eventos calificados como festivos o de interés turístico por el propio ayuntamiento o por el órgano competente de la Comunidad Autónoma, tales como celebraciones públicas, fiestas de barrio, acontecimientos de carácter social, ferial, certámenes, exposiciones u otros análogos, con el límite máximo de quince días por año natural.*

*b) Fiestas patronales, entendiendo por tales las establecidas oficialmente por cada ayuntamiento en su término municipal.*

*c) De jueves al lunes de Semana Santa; de jueves a martes en Carnavales, y desde el 15 de diciembre al 6 de enero en Navidades".*

**IKUSITA** aipatutako baldintzak, baita Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Oinarriak arautzen dituen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Jendaurreko Ikuskizunen abenduaren 23ko 10/2015 Legea, Euskadiko Autonomia Erkidegoan egiten diren jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituena, otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua (jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onesten duena) eta aplikatu beharreko gainerako legeak ere.

Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. artikuluak emandako eskuduntzak baliatuz eta Alkatetzaren 3214/2019 Dekretuaren bidez eskuordetutako eskuduntzak aplikatuz:

**VISTOS** los citados preceptos así como la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos regula los espectáculos públicos y actividades recreativas públicas que se desarrollen en la Comunidad Autónoma de Euskadi, Decreto 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas, y demás legislación de aplicación.

En uso de las facultades que otorga el artículo 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, y en aplicación de las facultades delegadas en virtud del Decreto de Alcaldía 3214/2019:

**EBATZI DUT**

**LEHENA.-** Getxoko ostalaritzako lokaletan eta joko-lokaletan **ixteko ordutegia bi orduz luzatzea** Gabonetako jaiak direla-eta, **2022ko abenduaren 16tatik 2023ko urtarrilaren 5era arteko** egunetarako. Modu honetara luzatuko dira ordutegiak:

**RESUELVO**

**PRIMERO**.- Autorizar la **ampliación de 2 horas del horario de cierre** de los locales de hostelería y locales de juego del municipio de Getxo con motivo de las fiestas navideñas, para los días comprendidos **entre el 16 de diciembre de 2022 al 5 de enero de 2023**, en los siguientes términos:

Getxo
Sinatua: AURORA BARRIO PAZO (ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA / TECNICA DE ADMINISTRACION GENERAL) Data: 2022/11/28 Fecha: 28/11/2022
Firmado: MIREN KELTSE EIGUREN ALBERDI Data: 2022/11/30 Fecha: 30/11/2022
Cod. Validacion: GET/DEK/2022/5316 Nm1PIgsp61

**1.- ostiraletan, larunbatetan eta jaiegunen bezperetan:**

**Ostiraletan:** abenduaren 16, 23an, 30an.
**Larunbatetan:** abenduaren 17an, 24an, 31n
**Jaiegunen bezperetan:** urtarrilaren 5ean.

Modu honetara luzatuko dira ordutegiak:

1. taldeko lokaletarako: goizaldeko 02:30ak arte.
2. taldeko lokaletarako: goizaldeko 04:30ak arte.
3. taldeko lokaletarako: goizaldeko 06:00ak arte.

**2.- Aldi horretako gainerako egunetan**, modu honetara luzatuko dira ordutegiak:

1. taldeko lokaletan: goizaldeko 01:00ak arte.
2. taldeko lokaletan: goizaldeko 03:00ak arte.
3. taldeko lokaletan: goizaldeko 04:30ak arte**.**

Ostalaritza- eta joko-lokaletako 4. taldeari ez zaio ordu gehiagorik emango, gaur egun ez baitago udalherrian talde horretan sailkaturiko jarduera-lizentzia duen lokalik.

**BIGARRENA.-** Ebazpen honek ez du terrazen erabilerako ordutegia aldarazten, ordutegi hori Ostalaritza eta merkataritza jarduerei lotutako erabilera publikoko espazioaren okupazioa arautzen duen Udal Ordenantzak arautuko du.

**HIRUGARRENA.-** Ebazpen honi Publizitatea ematea Udaleko Ediktuen Taulan jarriz eta baita udal-webgunean ere.

**LAUGARRENA**.- Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa den Sailari jakinaraztea, hura aplikatu baino 72 ordu lehenago, eta baita Bizkaiko Ostalaritza Elkarteari, Getxoko Ostalaritza Elkarteari, eta Getxo Enpresari ere.

**BOSGARRENA.-** Ebazpen hau Getxoko Udaltzaingoari jakinaraztea dagozkion neurriak har daitezen bertan xedatutakoa bete dadin.

**1.- viernes, sábados y vísperas de festivo:**

**Viernes:** 16, 23, 30 de diciembre.
**Sábados:** 17, 24, 31 de diciembre.
**Víspera de festivo:** 5 de enero.

Los términos de la ampliación serán:

Locales del grupo 1: hasta las 02:30 de la madrugada.
Locales del grupo 2: hasta las 4:30 de la madrugada.
Locales del grupo 3: hasta las 6:00 de la madrugada.

**2.- El resto de los días de este periodo**, la ampliación del horario será la siguiente:

Locales del grupo 1: hasta las 01:00 de la madrugada.
Locales del grupo 2: hasta las 03:00 de la madrugada.
Locales del grupo 3: hasta las 04:30 de la madrugada.

El grupo 4 de los locales de hostelería y de juego no es objeto de ampliación horaria porque actualmente no existe en el municipio ningún local con licencia de actividad clasificada en dicho grupo.

**SEGUNDO.-** Las disposiciones de la presente resolución no afectan al horario de las terrazas, que se regirá según lo previsto en la Ordenanza municipal reguladora de la ocupación de espacio de uso público vinculada a la actividad hostelera y comercial vigente.

**TERCERO**.- Dar publicidad a la presente Resolución mediante su exposición en el Tablón de Edictos del Ayuntamiento así como en la página web municipal.

**CUARTO.-** Dar traslado de la presente Resolución, al Departamento competente del Gobierno Vasco con una antelación mínima de 72 horas a la fecha de efectos, así como a la Asociación de Hostelería de Bizkaia, Asociación de Hostelería de Getxo y Getxo Empresa.

**QUINTO.-** Dar cuenta de la presente Resolución a la Policía Local de Getxo a fin de que adopten las medidas oportunas para que se cumpla lo dispuesto en el mismo.

Ebazpena hau Alkatearen eskuordetzaren bidez eman da

Esta Resolución se ha adoptado por Delegación de la Alcaldesa

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurarik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/ administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri den egiaztapen-kode segurua erabiliz

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal ( http://www.getxo.eus/ Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Cod. Validacion: GET/DEK/2022/5316 Nm1PIgsp61

Getxo

Sinatua: AURORA BARRIO PAZO (ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA / TECNICA DE ADMINISTRACION GENERAL) Data: 2022/11/28 Fecha: 28/11/2022
Firmado: MIREN KELTSE EIGUREN ALBERDI Data: 2022/11/30 Fecha: 30/11/2022